

## HIKAKO BERBETEA ARAMAIOKO MUXIKA-OLAETAN

Hoskera:    **-tt-** = **-t-** bustia(palatal)  
              **-dd-** = **-d-**   “    “  
              **-ts-** = **-tz-**   “    “  
              **-dx-** = -frantserazko **-j-** gutxi gora behera  
              **-tx-** = -espainerazko **-ch-**  
              **-x-**  = -frantzerazko **-ch-**  
              **-z-**  = **-s-**   “    “

### AURRE-HITZAK

Arangioko mendiak eta honen alboan daukagun hatx luze horrek bitan zaitzen dabe Aramaioko lurralde guztia. Bitan banantzen: ekialdea bata, eta mendebal-aldea bestea.

Ekialdea guztiz erripatsua da, aurberatsua, goi-behera handikoa. Alderdi honek beronen **zer-dan** guztia (Orixe haundiak esango leukenez) gipuzkoarantzakoa dauko, eta lurralde-motaz, bizibidez, elizate edo auzoz, hizkeraz eta abarrez antz-antzekoa dalako, Gipuzkoako LEINTZ aranaren luzapena gehiago dala emoten dau Arabakoa baino.

Aramaio guztiko bederatziz elizateetatik, ZORTZI bertan aurkitzen dira, eta, han, behe-behean, sakon-sakonean, Ibarra, Aramaioko erdigunea, eper-abia iduri, ikusten dugu, ingurumarian elizateak babesle eta zaintzaile dituala.

Alde honetako urak Deba ibaira doaz eta, ondorenez, Kantauri itxasora.

Mendebal-aldea, ostera, guztiz bestelakoa da: lautada luze-zabala. Hemengo urak Zadorra ibaira doakiguz (orain Legutianoko urtegira). Hotz-beroari dagokionez, ekialdea baino askoz hotzagoa da.

Lurralde honetan daukagun elizate edo auzo bakarra OLETA da, edo, hobeto esanda, MUXIKA-OLAETA, idaztagiri zaharrek dinoenez, beronen jatorrizko izena horixe da

eta. Sortu ere, MUXIKA izeneko Aramaioko Jaunak sortu ei eban amalaugarren gizaldian zehar edo. Inguruko oihan aberatsean eta, antza danez, joandako mendeetan tantai ikusgarritz jantzi-jantzitakoan sugarririk bazala, eta auzo osoa goitik beheraino zeharkatzen dauan *Atxingo erreka horrek ura ere baekarrela eta, Albiñako leku honetan ola bat edo beste eregitea bururatu jakon Aramaioko Jaun hari, eta, hurrengo, apurka-apurka etxe-bizitzak jaso ziran olen alboan, eta horra auzo barri bat agertu Aramaioko barrutian. Amaseigarren gizaldian zehar, 1575-garren urtean edo, dirudianez, oletarrek euren izerdiz eta “odolez” (bai, “odolez”), “PARROQUIA DE LA PURISIMA CONCEPCION DE MUXIKA-OLAETA” herriko elizea eregi eta eliz-ospakizunetarako zabaldu ebenean, orduantxe agertu zala esan daikegu haundikiro Oleta edo Muxika-Olaeta Kondaira-Historiaren esparruan.*

Aramaioko zati hau bizilagunez ekialdekoa baino urriagoa izan arren, luzera-zabaleraz ez da hain txikia. Anboto eta Urkiolamendi (Urkiolagirre) barrenetik Eskoriatzako Marin elizatearen eta Arabako Legutiano herriaren mugetaraino luzatzen da ipar-aldetik hegoalderuntz, eta, zabaleraz, Otxandioko herriaren kale-kaleraino heltzen mendebalderuntz. Bizikeraz, urretasunez, hartu-emonez, berbakeraz eta abarrez, Bizkaiko Otxandiano herriaren atal areago dala esan daiteke Arabakoa baino.

Berezitasun eta apartekotasun nabarmen-nabarmenak dakusguz alderdi bion artean. Batzuk aitatu ditut. Haundiena, baina, hizkuntzaren erabilkeran daukagula esango neuke. Ez dakit beste udalerrri bat izango dan Euskal Herri guztian, honenbeste ezbardintasun eta bestelakotasun dauanik. Askotxo esatea izango da behar bada, eta urrunegi joatea, baina jakin gura neuke.

*Arazo hau zerbait argituz, zerau generatu dagidan: Oleta eta inguruko berbakuntzaren bereizgarrietako bat -dx- fonema edo hotsa da, Aramaio ekialdekoa -x- dalarik.*

Argibidez:

Oletan honan hitz egingo da: “*Gaur eguerdidxen txoritdxek eta erbidxe dxan eta dxan egin dxuaguz*”. Aramaioko ekialdean, barriz, honelantxe: “*Gaur eguerdixen txoritxek eta erbixe jan eta jan egin jittuagu*”. Esaldiok berbakuntza batenak diranik esan ete ledike?

Bigarren bereizgarria, oso haundia hau ere, aditzaren, batez ere, hikako berbetearen erabileran daukagu, aurki ikusiko dogunez.

Oleta edo Muxika-Olaetaren eta Ibarra erdilekuaren bitartean burua harro-harro gora jasoten dauan Arangio-Hatx menditzar horrek Aramaio erdi bi egiten daukunez gero, ez da hain zurtz egitekoa alderdi bion artean ohi-ez-lango berezitasunak izatea, baita aditzaren arloan ere.

Zein alde batean zein bestean darabilguzan berbakerak bizkaierari dagokioz, jakina, baina era batera apartekotasun itzelak ere badukaguz.

Nik hauxe gogotaratu eta ozengi aldarrikatu nahi neuke: Oleta Aramaioko udalerrriaren zati dogunez —eta betidanik honantxe izan da, eta gure egunotan ere honantxe da— han egiten dan euskera-mota ere Aramaiokoa dala. Hots, Aramaioko berbakuntza ez dala

ekialdean egin ohi dana bakarrik, mendebal-aldean egiten dana ere, Oletako berbetea ere, Aramaioko euskera dala, bizilagunez gutxiengoa izan arren, aspaldi-aspaldidanik Aramaioko zati batean bizirik dan euskera dalako, eta gure egunotan ere honelantxe berba egiten dalako.

Beste berbabide batez: Aramaio euskeraren barrutian BIKOITZA dala, berbakera bitakoa, ez batekoa, eta berbakera bion **aramaiotartasuna** baieztu eta aldeztu egin behar gendukela, norbaitentzat hau harrigarria izango bada ere. Guzti hau dala eta, Aita GABRIEL JAUREGI aramaiotar karmeldarraren omenaldirako gertatzen diharduen idazlan-moltzoari, oletar batek bihotzez eskaintzen dauan obari huts hau guztizko eskubidez erants dakiokela nik uste.

## 1.- GUZTITARIKO JAKINKIZUNAK

Hikako jokabidea ez dala hain zaharra, dinosku Azkue handiak. Erromatarren Agintaldiaren azkenerantza, “zu” izenordea batena baino gehiagorena zala, eta aldi haretan hasi zirala “tú”ren ordez “vos” erabilten. “Zer da Erromatarren Agintaldia amaitu eta gure egunotara arterainoko bitartea euskeraren bizitzaldi luzearen ondoan?”, dirausku Azkuek (Morfologia Vasca-Bilbo-1925).

Gehiago dino Azkuek: Hikako berbetea oraintsukoa izan ez balitz, zukakoa gaur bizi ere ez litzatekela egingo. Lagun guztiei ez dautsegu hika egiten. Gaur berton ere, hika diahardugunean, “zuek etorri zaree” esan ohi dogu.

Esaldi menperatuetan ere ez dogu hika hitz egiten.

Adibidez:

—“*Atzo hire aita kalean ikusi ñoá(najuan)*”. Baina, “*atzo hire aita kalean ikusi nebala* (zuka) *dinostat* (hika).

Honek zerau adierazoten dau: hikako jokabideak aditzaren barruti guztia ez dauala oraindik bereganatu.

**Zertan datza hikako jokabidea?** Jakinkizun hau ere Azkuek berak ondoen argituko dausku. Ber-berak idatzi ebanez aitatzea hoba izango da. “*La familiaridad de la conjugación consiste en hacer que la persona i “tu” con quien uno habla intervenga afectuosamente en flexiones que no son suyas, de segunda persona, como lo son, por ejemplo, ator tú vienes, daramak (h.) lo llevas, natorkin yo te vengo a tí (muj.)*” (Morf. 517, 518 orr.)

Hau da:

Hi, bigarren pertsonako izenorde hori, berarenak ez diran adizkietan maitez, bihotzez edo txeraz tarteko agertzen da.

Izan ere, bitxiak dira begiratu batez egiterako (indikatiboa) orainaldian darabilguzan hikako jokoak:

(ni	etorri)	<b>nok/non</b>
(hi	“ )	<b>haz/haz</b>
(ha	“ )	<b>dok/don</b>
(gu	“ )	<b>gozak/gozan (gaittu/gaittun)</b>
(hareek	“ )	<b>dozak/dozan (dittuk/dittun)</b>

Azkuek irakatsiaren arabera, bigarren pertsonako jokoak (**haz**) ez, besteak izango litzatekez hikakoak, *haz* adizkia bigarren pertsonari berez dagokiona da eta.

Adizkiotan gauza harrigarri bat gertatzen da, ez Oletako euskaran bakarrik, bizkaiera guztian eta gipuzkoera guztian ere, eta idazlan honetara ekartea egoki izango dala deritxat.

Jazoten dan zer bakana hauxe da: aditz laguntzailearen aldaketa daukagula.

Hau da:

**Haz** adizkia **izan** laguntzaile igarongatxaren (laguntzaile intransitiboa) jokoak da. Beste guztiak, ostera, **ukan** laguntzaile igaronkorrenak (laguntzaile transitiboa). Benetan zurtz egitekoa hauxe!

**Izan** laguntzaile igarongatxak ez dauka hikako jokorik.

Azkue-k irakasten daukunez, **izan** “izen absolutua” da, eta **ukan**, “izen erlatiboa”. “*La familiaridad de este sustantivo (izan) consite simplemente en la sustitución de sus flexiones por las del “sustantivo relativo”* (Morf., 517 orr.).

“*Naiz en trato familiar se hace nauk/naun, contraidos en nok/non (B)... Nintzan, yo era, se convierte en nindukan/nindunan. En dialecto B. la o de nok/non figura por analogía en las flexiones de pretérito imperfecto. Familiares de nintzan, yo era, son nintzoan/nintzonan; de zan, él era, zoan/zonaz; de gintzazan, éramos, gintzoazan/gintzoazan; de ziran, eran, zoazan/zonazan*” (Morf. 517 orr.).

Baina hau ez da jazoten Oletako euskeraren esparruan, laster ikusiko dogunez.

Bizkaieraren barrutiari gagokiozala, lehen aldian hikako jokotzat hartzen diran adizkierak (*nintzoan/nintzonan, zoan/zonaz, gintzoazan/gintzonazan, zoazan/zonazan*) ez litzatekez, Azkueren eritxiz, berez hikako adizkiak izango, zukakoak baino, orain aldiko *nok/non, dok/don...* jokoetako -o- erantsiz zerbait aldatuta. Gipuzkoeraz, argibidez, lehen aldiko hikako jokoak *nindukan/nindunan...* eta abar dira, hau da, **ukan** aditz iragonkor (transitiboa) laguntzailearenak, edo Azkueren irakatsiz, “sustantivo relativo” diranarenak.

**Hikako berbetearen ezaugarri dan “hi” hori bereak** (bigarren pertsonakoak) **ez diran adizkiei zelan itsasten edo eransten ete jake?**

Hemen ere Azkue izango dogu argi-ontzi (argi-emoile) eta jakinbidea berak emongo dausku: “*La i familiar se aplica o por incorporación (convirtiendo a n en ñ, a d en dd y a l en ll: ñagok, ddagok, llegokek) o por mera agregación, mediante la vocal epentética a (algunos sin epéntesi: naiagok)*” (Morf., 588 orr.).

Berbetan dihardugunean laguna gizakumea zein emakumea izan daitekenez, -k eta -n ezaugarrien bidez egiten da bereizketa: **doK/doN...** eta abar.

Hikako adizkiak nahiz igarongatxean (intransitiboan) nahiz igaronkorrean (transitiboan), nahiz laguntzailezko jokoetan nahiz sintetikoetan erabili ohi dira Oletan, baina esakuntza nagusietan bakarrik, ez menperatuetan.

Ikusi:

-”*Aittek ekarri dxok (jok) ogidxe*” (aita izan da ogia ekarri duena). Baina, *aittek ekarri dauan* (zuka) *ogidxe gozue dok* (hika).

-”*Atzo goxeko amarretan Durangotik ñentorrá*” (atzo goizko hamarretan Durangotik nentorren). Baina, “*atzo goxeko amarretan Durangotik netorrela* (zuka) *erbi batek urten dxustá* (hika) *bidera*” (atzo goizeko hamarretan Durangotik nentorrela erbi batera zitzaidan bidera).

## 2.- OLETAN EGITEN DAN HIKAKO BERBETEAREN BEREIZKUNTZAK

Idazlan honetan Oletan egiten dan hikako berbetea hartuko dot jardungaitzat, gorago oharatu dodanez, eta jokabide horretan gailurtzen diran jakingarriak aitatuko.

Gurarizko erari (subjuntiboari) eta aginterari (inperatiboari) dagokienez, adizki berezi-bereziak erabili ohi dira.

Ikusi:

**Gurarizko era** (orainaldia): “*Osabak ekarri dxok erbi hau heuk dxan daidá*” (osabak erbi hau ekarri du hik jan dezaan).

Lehenaldian: “*Ixekok ekarri dxoá atzo oilasko hau heuk dxan eidxá*” (izekok atzo oilasko hau ekarri zuen hik jan hezan).

Agintera: “*Dxan daiguán arrapalada baten gero mendire dxuteko*” (jan dezagun arrapalada baten gero mendira joateko). “*Ein daiguzá bierrok eguerdi aurretik*” (egin ditzagun beharrok eguerdi aurretik).

Hemen ezin daikedaz berezitasun guztiak agertu, luzeegi joanko litzakit eta. Lehenaldiko hikako adizkiak ekarriko ditut, Oletako aditzaren apartekotasunik aipagarriena horixe da eta. Zail bitan bananduko ditut adizkiok. Lehenengoan, aditz laguntzailearen adizkerak dakarkedaz. Bigarreanean, aditz soil edo sintetiko batzuen jokoak.

## 3.- ADITZ LAGUNTZAILEA

**Egitera: lehenaldia**

**NOR adizkiak**

(ni	etorri)	<i>nitzá/nitzá</i>
(hi	“ )	<i>hitzá/hitzá</i>
(ha	“ )	<i>zá/zá</i>
(gu	“ )	<i>giñá/giñá</i>
(hareek	“ )	<i>zi(r)á/zi(r)á</i>

**Jakingarriak:**

– Hona joko berezi-bereziak, beste inon entzuten ez diran langoak. Oletan eta inguru guztian entzuten dira, Otxandion ere bai. Azkuek berak ere aitatzen dau apartekotasun hau bere *Morfologia Vasca* liburuan. Nafarroa aldeko nonbaiten ere antzeko jokoak badirala, dinosku berak. Baina bizkaieraz eta gipuzkoeraz inon ere ez, nik dakidala.

– Jokootan lehenaldiko ezaugarria dan **-n** galdu egiten da.

– Azkuek damoskun araua, hau dá, **izan** (“sustantivo absoluto”) aditzak ez daukala hikako jokorik eta haren lekuan **ukan** “sustantivo relativo” aditzarenak erabili ohi dirala, Oletako hikako berbetearen eremuan ez da betetzen. *Nitzá/nitzá, hitzá/hitzá, zál/zá...* eta abar **izan** laguntzailearen jokoak dira, ez **ukan** laguntzailearenak, gipuzkoeraz gertatzen dan bezala.

– Aramaioko ekialdea Leintz ibarraren luzapena dirudiala esan dot gorago. Hau dala eta, Aramaioko alderdi horretan darabilezan hikako jokoak —aramaiotar batek autortu daustanez— Leintzen entzuten diran antzekoak dirala. Horregaitik, ikusi argibidez eta konparabidez, Leintz aranean erabili ohi diran jokoak:

(ni	etorri)	<i>nintzoan/nintzonan</i>
(hi	“ )	<i>hintzan/hintzanan</i>
(ha	“ )	<i>zoan/zonan</i>
(gu	“ )	<i>gintzoan/gintzonan</i>
(hareek	“ )	<i>zittuan/zittunan</i>

**Ohartu:**

Jokook, Azkue maixuaren eritxiz, ez litzatekez hikako jokoak izango, *zittuan/zittunan* izan ezik

– Lehen aldiko adizkerotan azentoa guztiz nabarmena da Oletako euskaran: ez *nitza*, *nitzá* baino.

– Gizonekiko eta emakumerekiko bereizgarriak ez da aldi honetan. Aditz-joko bat eta bera erabili ohi da gizonezko bategaz nahiz emakume bategaz hitz egitean: *nitzá/nitzá, hitzá/hitzá...* eta abar.

**Ahalera: lehenaldi urruna**

(ni	etorri)	<i>ñeikiá/neikiá</i>
(hi	“ )	<i>heikiá/heikiá</i>
(ha	“ )	<i>lleikiá/lleikiá</i>
(gu	“ )	<i>geinkiá/geinkiá</i>
(hareek	“ )	<i>lleikizá/lleikizá</i>

**Jakingarriak:**

– Oletako berbetearen arabera, jokoon esan-nahia hauxe da: “ni joan nintekoen”, baita, “joan ahal izan nuen”.

– **Edin** laguntzailearen adizkerak dira.

– Adizkerok igarongatxak (intransitiboak) legez eta igaronkorak (transitiboak) legez entzuten dira.

Argibidez:

– “*Nik ekarri ñeikiá* (ogi bat)”, eta “*ni etorri ñeinkiá*”

– Igarogatxean honango adizkiak ere badarabilez Oletan: *ñeintekiá/ñeintekiá*, *heintekiá/heintekiá*, *lleitekiá/lleitekiá*, *geintekiá/geintekiá*, *lleitekizá/leitekizá*.

Ikus, konparabidez, Leintzekook:

(ni	etorri)	<i>neikean/neikenan</i>
(hi	“ )	<i>heikean/heikenan</i>
(ha	“ )	<i>leikean/leikenan</i>
(gu	“ )	<i>gei(n)kean/gei(n)kenan</i>
(hareek	“ )	<i>leikezan/leikezanan</i>

### NOR-NORK adizkerak

#### Egitera: Lehenaldia

NI		GU
<i>niñdduan/niñdduan</i>	(hik ekarri)	<i>gĩndduazá/gĩndduazá</i>
<i>niñdduá/niñdduá</i>	(harek “ )	<i>gĩndduzáz/gĩndduzáz</i>
<i>niñdduen/niñdduen</i>	(hareek “ )	<i>gĩñdduzáz/gĩñdduzáz</i>
HA		HAREEK
<i>ñoá/ñoá</i>	(nik ekarri)	<i>ñoazáz/ñoazáz</i>
<i>(e)bá/(e)bá</i>	(hik “ )	<i>(e)bazáz/(e)bazáz</i>
<i>dxoá/dxoá</i>	(harek “ )	<i>dxoazáz/dxoazáz</i>
<i>genduá/genduá</i>	(guk “ )	<i>genduzáz/genduzáz</i>
<i>dxoen/dxoen</i>	(hareek “ )	<i>dxoezan/dxoezan</i>
HI		
(nik ekarri)		<i>hinddudáz/hinddudáz</i>
(harek “ )		<i>hinddudáz/hinddudáz</i>
(guk “ )		<i>hindduguzáz/hindduguzáz</i>
(hareek “ )		<i>hindduen/hindduen</i>

## Jakingarriak:

– **Ukan** laguntzaile igaronkorraren (transitiboa) jokoak dira. Hemen ere, lehen aldiko ezaugarriaren **-n** jausi egiten da.

Adibidez:

– *Ikusi bá atzo erbirik mendixen?* (ikusit huan erbirik mendian?. “*Ez, eñoa ikusi*” (ez, ez nuen ikusi). “*Nok jo hinddudá atzo?* (Nork jo hinduan atzo?).

– **Nebazan, ebazan...** eta abar jokoak barriak dirala eta Azkuek berak asmatuak edo dirala behin baino gehiagotan entzun izan dot. Ez dot uste hori egia izan daitekenik. Azkue munduratu baino askoz lehango *ebá/ebá, ebazá/ebazá* adizkiak bizi-bizirik ziran Oletako (eta Otxandioko) berbetan.

– Adizkiaren azkenengo **-a** horretan azentoa indartsu jausten da eta Oletako hizkeran berezitasun hauxe dauko: lehen aldiko ezaugarria dan **-n** kentzeaz batera, hikako jokabidearen ikur dala. **Genduan** zukako adizkeratik *genduá* hikakoa sortzen da, **genduzan** zukakotik *genduzá* hikakoa dator. Eta hau hikako jokabide guztian gertatzen da.

– *Ñoa/ñoá, ñozá/ñoazá* adizki bitxiak izango dira agian norbaitentzat. Baina kontutan izan begi irakurleak honango jokoak behar langoak edo ohi-ohikoak dirala Oletako berbetaren alorrean. Honexegaitik: zukako jokoak **noan, noazan** diranez, nahikoa da hikako jokoan **hi** adizkiari itsastea, **-n> -ñ** bihurtzeko. Hala ere, Otxandioko herria bertan dan ezkerok, *naidxoá/naidxoá, naidxoazá/naidxoazá* ere entzuten dira.

– Leintzeko adizkiak:

### NI

<i>niñdduan/niñddunan</i>	(hik ekarri)	<i>giñdduzan/giñdduzan</i>
<i>niñdduan/niñddunan</i>	(harek “ )	<i>giñdduzen/giñdduzen</i>
<i>niñdduen/niññduen</i>	(hareek “ )	<i>giñdduezan/giñdduezenan</i>

### GU

### HI

<i>najuan/najunan</i>	(nik ekarri)	<i>najittuan/najittunan</i>
<i>heuan/heunan</i>	(hik “ )	<i>hittuan/hittunan</i>
<i>juan/junan</i>	(harek “ )	<i>jittuan/jittunan</i>
<i>genduan/gendunan</i>	(guk “ )	<i>genittuan/genittunan</i>
<i>juen/junen</i>	(hareek “ )	<i>jittuen/jittunen</i>

### HAREEK

### HI

(nik ekarri)	<i>hiñddudan/hiñddudanan</i>
(harek “ )	<i>hiñdduan/hiñdduanan</i>
(guk “ )	<i>hiñdduguan/hiñddugunan</i>
(hareek “ )	<i>hiñdduen/hiñdduenan</i>



**NOR-NORI-NORK adizkiak****Egitera: Lehenaldia**

(Norbait edo zerbait)

**NIRI**

<i>hustá/hustá</i>	(hik ekarri)	<i>huskuá/huskuá</i>
<i>dxustá/dxustá</i>	(harek “ )	<i>dxuskuá/dxuskuá</i>
<i>dxusten/dxusten</i>	(hareek “ )	<i>dxuskuen/dxuskuen</i>

**GURI****HARI**

<i>nutxá/nutxá</i>	(nik ekarri)	<i>nutxá/nutxá</i>
<i>hutsá/hutsá</i>	(hik “ )	<i>hutsá/hutsá</i>
<i>txá/txá</i>	(harek “ )	<i>txá/txá</i>
<i>guntxá/guntxá</i>	(guk “ )	<i>guntxá/guntxá</i>
<i>txén/txén</i>	(hareek “ )	<i>txén/txén</i>

**HAIEI****HIRI**

(nik ekarri)	<i>nustá/nustá</i>
(harek “ )	<i>hustá/hustá</i>
(guk “ )	<i>gustá/gustá</i>
(hareek “ )	<i>husten/husten</i>

**Jakingarriak:**

– **NOR** (edo osagarri zuzena) batena baino gehiagorena edo plurala egiteko nahikoa da adizkiei **-za** eranstea. Adibidez: **nik hari** (norbaitzuk edo zerbaitzuk ekarri) *nutxazá/nutxazá*, harek hari (ekarri) *txazá/txazá*, eta abar eta abar.

– Dakusgunez, adizkiok itxuraz aldatuta edo bestelakotuta agertzen jakuz, hobeto esanda, zeharo laburtuta. Adizki osoak **hari** sailean, esaterako, Oletan erabiltzen direnez, honelangoak izango litzatekez: *neutxá/neutxá*, *heutsá/heutsá*, *dxeutxá/dxeutxá*, *geuntxá/geuntxá*, *dxeutxen/dxeutxen*. Eta honantxe beste sailetan ere.

– Adizkiok bizi-bizirik dira Oletan eta inguruan hika berba egin ezker. Gehienetan lehen aldiko ezaugarria **-n** jausi egiten da, hirugarren mailako adizkietan izan ezik.

– **Hari** eta **harei** sailetan adizkiak bardinak dira, pluralgilea galdu egin dalako.

– Hirugarren pertsonan adizki osoa *dxeutxá/dxeutxá*, *dxeutxazá/dxeutxazá* izango litzatekez, baina herriko berbetan **-dx-** fonema eta **-eu-** jausi egiten dira: “*Aittek emon txá Peruri* (gauza bat)”.

– Ikus, konparabidez, Leintzeko jokoak.

## NIRI

<i>heustan/heustanan</i>	(hik ekarri)	<i>heuskuan/heuskunan</i>
<i>jaustan/jaustanan</i>	(harek “ )	<i>jauskun/jauskunan</i>
<i>jausten/jaustenen</i>	(hareek “ )	<i>jauskuen/jauskunen</i>

## GURI

## HARI

<i>neutsen/neutsenan</i>	(nik ekarri)	<i>neutsen/neutsenan</i>
<i>heutsan/heutsanan</i>	(hik “ )	<i>heutsen/heutsenan</i>
<i>jautsan/jautsanán</i>	(harek “ )	<i>jautsen/jautsenan</i>
<i>geuntsen/geuntsenan</i>	(guk “ )	<i>geuntsen/geuntsenan</i>
<i>jautsen/jautsenen</i>	(hareek “ )	<i>jautsen/jautsenan</i>

## HAIEI

## HIRI

(nik ekarri)	<i>neustan/neustanan</i>
(harek “ )	<i>heustan/heustanan</i>
(guk “ )	<i>geustan/geustanan</i>
(hareek “ )	<i>heusten/heustenán</i>

#### 4.- ADITZ SOILAK (sintetikoak)

##### NOR adizkiak

##### Egitera: Lehenaldia

## ETORRI

<i>ñentorrá/ñentorrá</i>	(ni)
<i>hentorrá/hentorrá</i>	(hi)
<i>dxetorrá/dxetorrá</i>	(ha)
<i>gentozá/gentozá</i>	(gu)
<i>dxetozá/dxetozá</i>	(hareek)

## EGON

<i>ñenguá/ñenguá</i>
<i>henguá/henguá</i>
<i>dxeguá/dxeguá</i>
<i>gengozá/gengozá</i>
<i>dxegozá/dxegozá</i>

##### Jakingarriak:

– Leintzeko jokoak:

<i>nentorran/nentornan</i>	(ni)	(ez ezagunak)
<i>hentorran/hentornan</i>	(hi)	
<i>jentorran/jentornan</i>	(ha)	
<i>gentorran/gentorranan</i>	(gu)	
<i>jentozan/jentozanan</i>	(hareek)	

**IBILI**

<i>nenbillá/nenbillá</i>	(ni)
<i>henbillá/henbillá</i>	(hi)
<i>dxebillá/dxebillá</i>	(ha)
<i>genbizá/genbizá</i>	(gu)
<i>dxebizá/dxebizá</i>	(hareek)

**DXUN (joan)**

<i>ninddoiá/ninddoiá</i>
<i>hinddoiá/hinddoiá</i>
<i>dxoiá/dxoiá</i>
<i>ginddoiázá/ginddoiázá</i>
<i>dxoiázá/dxoiézá</i>

**Jakingarriak:****Angiozarren**

<i>nebillan/nebillanan</i>	(ni)
<i>hebillan/hebillanan</i>	(hi)
<i>jebillan/jebillanan</i>	(ha)
<i>gebiltzan/gebiltzanan</i>	(gu)
<i>jebiltzan/jebiltzanan</i>	(hareek)

**Leintzen**

<i>najoian/najoian</i>
<i>hoian/hoian</i>
<i>joian/joian</i>
<i>goiazan/goiazan</i>
<i>joiazan/joiazan</i>

**NOR-NORK adizkiak****Egitera: lehenaldia****EKARRI (norbait edo zerbait)****NI**

<i>nenkarrá/nenkarrá</i>	(hik)
<i>ñankarrá/ñenkarrá</i>	(harek)
<i>ñenkarren/ñenkarren</i>	(hareek)

**GU**

<i>genkazá/genkazá</i>
<i>gendxakazá/gendxakazá</i>
<i>gendxakazá/gendxakazá</i>

**HA**

<i>ñenkarrá/ñenkarrá</i>	(nik)
<i>hekarrá/hekarrá</i>	(hik)
<i>dxe-karrá/dxe-karrá</i>	(harek)
<i>genkarrá/genkarrá</i>	(guk)
<i>dxe-karren/dxe-karren</i>	(hareek)

**HAREEK**

<i>ñenkazá/ñenkazá</i>
<i>hekazá/hekazá</i>
<i>dxe-kazá/dxe-kazá</i>
<i>genkazá/genkazá</i>
<i>dxe-karrezá/dxe-karrezá</i>

**Jakingarriak: Ikus Leintzeko jokoak.****NI**

<i>nenkarran/nenkarrenan</i>	(hik)
<i>nenkarran/nenkarrenan</i>	(harek)
(galduta)	(hareek)

**GU**

<i>genkarran/genkarrenan</i>
(galduta)
“



<i>nenkarren/nenkarrenan</i>	(nik)	(galduta)
<i>hekarren/hekarrenan</i>	(hik)	( “ )
<i>jekarran/jekarnan</i>	(harek)	( “ )
<i>genkarran/genkarnan</i>	(guk)	( “ )
<i>jakarren/jakarrenan</i>	(hareeek)	( “ )



– **Hiri** sailari dagokiozan jokoak hilik dira, atso-agure zaharrenentzat ere.

### NOR-NORI-NORK

Egitera: lehenaldia

**EKARRI** (nor bait edo zer bait)

#### NIRI

<i>hekastá/hekastá</i>	(hik)
<i>dxekastá/dxekastá</i>	(harek)
<i>dxekastén/dxekastén</i>	(hareek)

#### GURI

<i>hekaskuá/hekaskuá</i>
<i>dxekaskuá/dxekaskuá</i>
<i>dxekaskuén/dxekaskuén</i>

#### HARI

<i>nekartxá/nekartxá</i>	(nik)
<i>hekartxá/hekartxá</i>	(hik)
<i>dxekartxá/dxekartxá</i>	(harek)
<i>genkartxá/genkartxá</i>	(guk)
<i>dxekartxen/dxekartxen</i>	(hareek)

#### HAREI

<i>nekartxá/nekartxá</i>
<i>hekartxá/hekartxá</i>
<i>dxekartxá/dxekartxá</i>
<i>genkartxá/genkartxá</i>
<i>dxekartxen/dxekartxen</i>

#### HIRI

(nik)	<i>nekastá/nekastá</i>
(harek)	<i>ekastá/ekastá</i>
(guk)	<i>genkastá/genkastá</i>
(hareek)	<i>ekastén/ekastén</i>

#### Jakingarriak:

– Adinetako gizon-emakumeek eurrez darabitez jokook, baina gazteentzat galdurik dira.

– **Nor** (osagarria zuzena) plurala egiteko **-zá** hizkia eransti. Adibidez: **Hiri nekastá, ekastázá...** eta abar.

– **Hari** eta **harei** sailetan ez dabe bereizkuntzarik egiten.

– *Nekastá, hekastá, dxekastá, genkastá...* eta abar adizkietan **-sk-** NORI morfemaren aldakuntza daukagu, hau da, **-sk-** > **-st-** bihurtzen da: *nekaská = nekastá*

– Leintzeko jokorik ez dot ezagutzen.

## EUKI

**Egitera: lehenaldia.**

<b>HA</b> (norbait edo zerbait)		<b>HAREEK</b> (norbaitzuk edo zerbaitzuk)	
<i>ñeuká/ñeuká</i>	(nik)	<i>ñeukazá/ñeukazá</i>	
<i>heuká/heuká</i>	(hik)	<i>heukazá/heukazá</i>	
<i>dxeká/dxeká</i>	(harek)	<i>dxekazá/dxekazá</i>	
<i>geunká/geunká</i>	(guk)	<i>geunkazá/geunkazá</i>	
<i>dxekén/dxekén</i>	(hareek)	<i>dxeukezá/dxeukezá</i>	

### Jakingarriak:

– Adizkiok bizi-bizirik daukaguz Oletan, bai zaharren artean eta baita gazteen artean ere.

– Hona Leintzeko adizkerak:

<b>HA</b> (norbait edo zerbait)	
(nik)	<i>najaukan/najaukan</i>
(hik)	<i>heukan/heukan</i>
(harek)	<i>jaukan/jaukan</i>
(guk)	<i>gajaunkan/gajaunkan</i>
(hareek)	<i>jaukien/jaukien</i>

## ERUEN (croan)

**Egitera: lehenaldia**

<b>HA</b> (norbait edo zerbait)		<b>HAREEK</b> (norbaitzuk edo zerbaitzuk)	
<i>ñeroiá/ñeroiá</i>	(nik)	<i>ñeroiazá/ñeroiazá</i>	
<i>heroiá/heroiá</i>	(hik)	<i>heroiázá/heroiázá</i>	
<i>dxeroiá/dxeroiá</i>	(harek)	<i>dxeroiazá/dxeroiazá</i>	
<i>geroiá/geroiá</i>	(guk)	<i>geroiázá/geroiázá</i>	
<i>dxeroien/dxeroien</i>	(hareek)	<i>dxeroiezá/dxeroiezá</i>	

**Jakingarriak:**

- **Niri, Hiri, Guri** sailei dagokien jokorik ez da bizi Oletako hikako berbakeran.
- Leintzeko jokoak hauexek ditugu:

**HA**

(norbait edo zerbait)

(nik)	<i>neroian/neroian</i>
(hik)	<i>heroian/heroian</i>
(harek)	<i>jaroian/jaroian</i>
(guk)	<i>geruan/geruan</i>
(hareek)	<i>jaroien/jaroiñen</i>

**E(RA)BILI****Egitera: lehenaldia****HA**

(norbait edo zerbait)

<i>nebillá/nebillá</i>	(nik)	<i>ñebizá/ñebizá</i>
<i>hebillá/hebillá</i>	(hik)	<i>hebizá/hebizá</i>
<i>dxebillá/dxebillá</i>	(harek)	<i>dxebizá/dxebizá</i>
<i>genbillá/genbillá</i>	(guk)	<i>genbizá/genbizá</i>
<i>dxebillén/dxebillén</i>	(hareek)	<i>dxebizá/dxebizá</i>

**HAREEK**

(norbaitzuk edo zerbaitzuk)

**Jakingarriak: Angiozarren honan:**

<i>najabillan/najabiñan</i>	(nik)	<i>najabiltzan/najabiltzanan</i>
<i>hebillan/hebillanan</i>	(hik)	<i>hebiltzan/hebiltzanan</i>
<i>jabillan/jabillanan</i>	(harek)	<i>jebiltzan/jebiltzanan</i>
<i>gebillan/gebillanan</i>	(guk)	<i>gebiltzan/gebiltzanan</i>
<i>jebillen/jebillenan</i>	(hareek)	<i>jebiltzan/jebiltzanan</i>

**OHARKIZUNAK**

- Agertu ditudan adizkiok nahikoa izango dirala uste dot Oletako hikako berbakeran aditz-joko berezi-bereziak erabiltzen dirala eta hango jokoak zein eratakoak diran jakiteko. Horregaitik ez dot beste aditzik aitatzen.

- 1979. urtean "OLETAKO EUSKAL ADITZA-EL VERBO VASCO DE OLETA" izenez liburu bat argitaratu neban (Diputación Foral de Alava-Consejo de Cultura-1979). Liburu hartantxe datoz lan honetan birrekarrri ditudan adizkiak.

– Leintz aranako aditz jokoak Eskoriatzako Marin auzoan jaio, eta urtetan eta urtetan udalerrri bereko Gellao auzoan bizi izanda gero, orain Eskoriatzan bertan bizi dan JOSEA AZKARATE AREJOLA-LEIBA apaizak bildutakoak dira.

– Angiozarko jokoak, barriz, bertan jaio eta beti-beti bizi izan dan eta orain ere bizi dan MERTXE ALTUBE andra gazteak bildutakoak.

## OLETAN HIKA BERBETAN

### Aitte-seme-alaben artien

**Aittek.**– Bai, amaiketxu mesede ein dxeutxadaz nik auzuko horri neure bizitza guztidxen, baie esker txarra eta zitalkeridxe baino etxoadaz beragandik hartu.

Etxe ondotik bera duen erreka horixe bittarte dogula bixi ixen gozak dxaidxo ginan ezkerro, eta, alan be, bata Ameriketan eta bestie Erroman edo bixi ixen bagiñozak lez ibili ixen gozak beti, bata-bestiengana muker eta begioker, alkarri muzin eginez, egundo gure ezpanetan irribarrerik ikusi barik eta sekula santan alkarri txeraz eta begi argiz begiratu barik.

**Semiak.**– Nundik sortu zan, ba, bidxon arteko asarre hori?

**Aittek.**– Nundik sortu zan dinustek, nundik? Huskeri batetik, mundu zittal honetan gehidxenetan pasetan dan lez. Umetan eta mutikotan alkarregaz eitten genduzá geure olgetak, beti alkarregaz, bixi be, auzu-auzuen bixi giñá-ta. Baie ni bera baino gehitxuau ixeten nitzá gauza batzuetan. Pelotan eitten genduenien, tantutxu bigaitik edo, baie neuk irabazi. Saltoka genbizenian, apur bategaitik ixengo zá, baie neuk gehitxuau eitten fioá. Arbola zein hatx-puntara igo biher zanién, pauxutxu bat edo bi neu aurretik. Uger genbizona, amasarik hartu barik ur aspidxen egoten be, neu nausi.

Hoixe ixen zá nire pekatue, hoixe besterik ez. Hortixik hartu dxustá itzelezko amorue, ikusi-ezine, gorrotue... eta begidxen aurrien be eniñdduá ikusi gure, eta bidez-bide nentorrela ikusten baniñdduá, beste bat hartuko dxoá neugaz tril ez eittearren.

Gero, umetako eta gaztetako gorrotu ha gehittuten eta gehittuten dxun zá urtietan, eta horrá auzu-auzuko gixon bi alkarren areridxorik handidxenak ixen balitzozak lez bizitza guztidxen bixi. Sinistu be ezin lleikek egin, bai holantxe dok.

Halan da guzti be, benetan diñustat, benetan. Amaiketxu mesede eginikue nok ni gixon horri. Nire biher ixen dauan guztidxen haintxe ixen nok ni laguntzeko prest. Askotan luzetu dxeutxat neure eskue berarena estutzeko ta dxundako gauza guztidxek aztu eta aurrerantzien anaidxak lez bixi geinttezen. Hau egi-egidxe dok. Eztok neure burue goratutie. Hor dazak testigu auzuko guztidxek...

**Alabiek.**– Euskerie aittatu ezkerro, zu berotu eitten zá, aitte. Berotu eta sutu, begidxek bixittu, betulak arteztu, matrailak gorritu, arpegidxe baltztu, eta okotza bera be zorroztu eitten jatzula emoten dau. Itxi daiguzan alde batera berotu eitten gaittuen arazuok, eta zu ipuin-zale be bazá eta, kontau eiguzu ipuintxo bat. Baie barre eittekue, e?

*Pedro Puxana Agirregabiria, oletarrak*